

PULTSUA: HERNANIKO KIROL ONDAREA

Jon Odriozola

Gerra eta gerraosteak ez dira batere samurrak. Gerra Zibilaren (1936-1939) ondorengo urteak, adibidez, laztak izan ziren hernaniarrentzat. "Herria asko atsekabetu zen", zioen Imanol Larretxeak. Halere, pizgarri modua, hernaniarren artean, tarteka norgehiagokak antolatzen ziren. "Adibidez, harri kozkorak hartu eta ea nork urrunago bidali aritzen ginen". Zein baino zein apustu bitxiagoak.

"Esaterako, Santa Barbaratik korrika nor lehenago jaitsi... Harrobia txikia zen orduan, eta maldan behera nor arinago lasterkan heltzea izaten zen helburua. Baita pertika modukoekin ere", gogoratzen zuen Larretxeak. "Makila luze samar bat hartu, lurrean sartu eta bere laguntzaz saltoak eginez aldapan behera jaisten ziren. Behin Adarra mendira nindoala, puntatik Fagollagaraino nor

lehenago iritsi apustua ikusi nuen. Pertsona bat biren aurka lehiatu zen. Bikoteak irabazi zuten. Salto ikusgarriak eman zituzten".

Zentsura.

Lehiengandik oso urrun izaten ez diren apustuek, nahitaezko goibelaldia ezagutu zuten Primo de Riveraren diktaduraren garaian (1923-1930). Euskaraz hitz egitegatik isunak jarri ziren bezala, aizkora apustuak ere galaraziak izan ziren. Hizkuntza, bandera eta armarren 1926ko martxoaren 17ko Errege-dekretuaren lehen artikulua arabera, "aginduak betetzen ez dituztenei 25.000 pezetako -150 euro inguru- isuna jarri ahal izango diete gobernadore zibilek" argitaratu zuen 1926an La Voz de Guipuzcoa egunkariak.

Garai hartan, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak, Enrique Chaconek, zirkular bat kaleratu zuen, "aizkora saio gehiegizko eta kaltegarriak ugaritu ez zitezten". Ez zen batere kamuts aritu. Aizkora, sega eta pisu-jasotzaileen ikuskizunak bertan behera geratzeko agindua eman baitzuen. Araurrazaileei "neurri zorrotzak" ezarriko zitzaizkiela ohartarazi zien. "Euskal Herrian oso aspaldikoa den aurrezte izaera eta herritar nekazarien laztasun eta lan ohiturak aldatu eta kalte larria eragiten dizkie" adierazi zuen Chaconek herri-kiroletan egiten ziren apustuen harian.

Pultsulariak.

Hernanin gerra-aurretik, bati bat, kirol lehiaren batek oihartzunik izan bazuen, pultsua izan zen. Pultsua, egungo halterofiliaren moduko kirol



la zen. Itxuraz oso berdintsua baina zamak altxatzeko orduan oso teknika berezia behar zuena. Egungo estiloarekin alderatuz, ezohikoa eta ezberdina.

"Zaletasun handia zegoen herrian pultsuan aritzeko", zioen Larretxeak. "Hernanik oso pultsulari onak eman ditu gainera. Lehia bat jokatzan zen bakoitzean biltzen zen jendetza ere ikusgarria izaten zen. Eta noski, norgehiagoka bakoitzean apustuak izaten ziren".

Alberro sagardotegiaren hurrengo etxean bizi ziren 'Potrokillotarrak' oso onak ziren. Baita Florida auzoko Zelaraindarrak ere. Herriko lau pultsulari onenak Joxe Zapiain 'Enporru', Argindegi baserriko Joxe Iradi, Carmelo Arbide 'Potrokillo' eta Pedro Oruezabala 'Lejias' izan ziren.

Habian.

Egun 91 urte dituen Antonio Goikoetxea, gaztetan pultsuan ibili zen bere baserriaren ingurumarian. "Altzuetan bizi nintzela, gero Añarregi baserrian bizitzen jarri ziren Errazkindarrekin aritu nintzen pultsuan. Orduan, beste norbaitekin lehiari aritzeko zaletasuna ohikoa zen. Nik 13 bat urte izango nituen pultsularitzari ekin nionean. Ez nintzen inoiz plazan aritu. Ezta Errazkindarrak ere, nahiz eta oso indartsuak eta iaioak izan. Gure baserri inguruan zegoen ukuilu zahar baten atzean aritzen ginen; lizar zuhaitz batzuen itzalean".

Herrian jokatu zen lehen apustua, Tilosetan, Pedro Oruezabalak 'Lejias' eta Florida aldeko Beskisa baserriko Joxe Mari Zelarainek izan daitekeela uste du Goikoetxeak.

"Egungo halterofilia egiten dutenak golpe handi bat emanez bular aldera ematen dute pisua. Ondoren atsedean pixka bat hartu eta azken kolpe batekin buru gainetik jasotzen dute. Pultsuak beste arau batzuk zituen. Adibidez, hasierako altxatzeko kolpea bularreraino ematen bazen ere, ezin zen bularra ukitu. Airean mantendu behar zen. Eta handik azken kolpe bat emanaz, gaur egun bezala buruz gain altxatzen zituzten pisu ezberdinak. Ondoren, laguntzaileekin batera lurreratzen zuten zama".

"Ardatza edo barraren ezker-eskuinean ipintzen ziren platera moduko plakak berunezko pisu ezberdinekoak izaten ziren. Nahiz eta ardatzak biribilak izan, heldu-lekuak karratuak izaten ziren" dio Goikoetxeak. "Ardatz bat baino gehiago Portuko Txato errementariak egiten zituen".

"Enporru" garaile.

Lehiak arreta handiz prestatzen ziren. "Pultsulari bakoitzak bere koadrila izaten zuen", gogoratzen du Goikoetxeak. "Hau da, apustu bat antolatzeo zenbait pertsonak diru kopuru bat biltzeaz gain, pultsulariaren entrenamendu eta mantenuaz ere arduratzen ziren: prestaketan laguntzeko, jaten ematen...".

Herrian jokatu zen apustu entzute tsu bat, Joxe Zapiain 'Enporruk' eta Argindegiko Joxe Iradik, gerra aurretik jokatu zutena izan zen. "Garai hartan, jendeak, 'Argindegik' 'Enporruk' baino gehiago jasotzen zuela esaten zuen, baina 'Argindegi' urduri jarri eta 'Enporruk' irabazi zion" gogoratzen zuen Imanol Larretxeak.

Garaipenaren gako lehiaren prestakuntzan egon zela uste du Antonio Goikoetxeak. "Primeran prestatu zen. Medikuek batek gidatu zuen bere prestakuntza. Ondo elikatu zen 'Enporru'. Adibidez, barazkiak jaten aritu zen besteak beste. Gimnasia ere egin zuen. Hau da, mila atarramentu. 'Argindegik', ordea, kontrakoa egin zuen. Atsedean hartu eta denetarik jan: txuletak... Azken batean, apustua, 'Argindegik' galdu zuen".

Giroa.

Pultsularien lehiak, batik bat, Tilosetan jokatzan ziren eta sasoi hartan jendeak diru askorik izango ez bazuen ere, apusturik ez zen falta izaten. "Ziurrenik, asko jota zortzi eta hamar pezeta ingurukoak", aipatzen du Paco Iraolak. "Dirua garai hartan ez baitzegoen batere soberan. 1934an nire aitak bizikleta bat erosi zidan Donostiako Askatasunaren hiribideko Comet etxean. Ez zen karreretakoa, apal-apal bat baizik. Sei pezeta ordaindu zituen. Beraz, hortik kontuak atera".

Norgehiagokak beroak izaten ziren. "Gogoan dut behin Tilosetan ospatu zen lehia batean, pultsuan erabili beharreko berunezko pisuak baskularen gainean jartzen ari zirela 'Potrokillo' pisuarekin tranpa egiten ahalegindu zela. Amarrugile fama zuten 'Potrokillotarrak'. Jendea ohartu orduko builaka hasi zen. Hura iskanbila!".

"Isidro Ollokiegi 'Eltzekondo' herritar indartsua ere oso iaioa zen pultsuan" aipatzen zuen Imanol Larretxeak. "Horretarako espresuki jaioa", eransten du Antonio Goikoetxeak. "Behin-zioen Larretxeak- Hernanitik kanpo chunetik gora kilo, antza, 106 eta 108 kilo artean, jaso zituen. Jendea indar erakustaldiarekin gozatzen ari zenez, 'jarraitu jasotzen' esaten hasi zitzaion. Eskarien aurrean bai erantzun zuen hernaniarrak baina jasotzen zuen arroa



Tilosetan jokatutako apustu bat (1935).



(11,5 kilo) bakoitzarengatik ontza bat urre ematen bazioten. 'Eltzekondo' ez zen batere tontoa. Bada ez bada ere inork ez zuen indartsuaren proposamena aintzat hartu".

Jaso eta jaso.

'Eltzekondok' 1901eko urtarrilaren lean Andoainen egin zuen lanak zeresan handia eman zuen. Garai hartako *La Unión Vascongada* egunkariak "erakustaldi harrigarria" bezala laburbildu zuen ikuskizuna. Goizeko hamaiketan jende askoren aurrean probaren baldintzak egiaztatu zituzten. "Plazaren erdi-erdian kokatu zen Eltzekondo. Alde batean, berriz, baskula bat. Bestean, arauak betez altxatzen ote zuen ikuskatzeko tokiko aginpideak aukeraturiko Andoaingo Evaristo Barriola eta Astigarragako Saturnino Arrieta lekukoak".

Forma zilindrikozko berunezko pisu batzuk ertzetan zituen burdinazko 1,60 metroko ardatzaren aurrean jarrri eta lanari ekin zion hernaniarrak. "Lehen proban, ezker eskuarekin 100 kilo erraztasun handiz altxa zituen; bigarrenean, bi eskuekin, 116 kilo; hirugarrenean, 119; laugarrenean, 125; bosgarrenean, 129 eta seigarren

eta azkenekoan, 132,050 kilo. Altxaldi guztiak garbitasun eta trebetasun handiz egin ditu eta eginahala bakoitzean ez du ezta minutu bat bera ere galdu. Ez hori bakarrik, ahalgindu izan balitz, arropa bat gehiagoko altxatzeko gai zela uste osoa zuen ikusle guztiak" argitaratu zuen egunkariak.

Egungo halterofiliaren antza apur bat duen pisuak altxatzeko kirolak "Andartza" izena hartu zuen Gipuzkoan. 'Eltzekondok' pultsuan izan zituen arerioa gogorrenak, Asteasuko Antonio Ondartzakoa –"oso indartsua zen" gogoratzen du Antonio Goikoetxeak– eta Zubieta-ko Andres Beloki izan ziren. Ramon Garate "Urrestillako Bidezaina" ere ez ei zen pultsulari batere makala.

Gainbehera.

Hernanin 1943 urte inguruan jokatu zen azken pultsulari apustua. Bertan, Gurmendi baserriko Benitok eta Arrigorriaga deitura zuen bere lagun batek jokatu zuten Zinkoeneako tabernaren ondoan dagoen lorategian. "Orduan gaurkoaren aldean handiagoa zen" dio Goikotxeak.

Harri-jasotzea indar hartzen joan zen heinean, pultsua ahuldu egin zen. Halere, 1959an eta 1960an, Aginagan, Euskal Herriko pultsulari txapelketak jokatu ziren; bai halterofilia olimpiko eran eta bai era klasikoan ere.

Duela berrogeita hamar urte Antonio Zavala bertso adituak, Julio Bareño gernikarrak bidalitako ondorengo bertsoak jaso zituen. Azken honen, norbaiten ahotik entzundakoak zirela jakinarazi zion. "Orain urte askotxo, Oleta, Amoroto aldean izan zen pultsulari-jokoaren bertsoak dira" argibidea eman zion bizkaitarrak aita Zavalari.

*Julian Berengua,
askok dakiguna,
pultsoan jokatzen
erbestera joana.*

*Ari kendu zioten
joko ezaguna,
baña ez indarrez da
egokitasunaz.*

*Geure defensoria
Jose Aldazabal,
ak ere errazoa
sustantziak eman.*

*Obeto jasoteko
baleuko nai beza,
ori etzan gustatzen
Oleta'ko plazan.*

*Jokue doblatuta
beste plaza baten,
axe konbenentzia
nai dezuten urten.*

*Andiek emoteko
liberdi propiñe,
danak izan zituen
berdidu eziñe,
andia ona da baña
txikie obie.*